



## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera ateratzeko ezin bestekoak ditugu kanpo elkarte batzuen laguntzak, horiek gabe, emaitza ez delako guztiz ona izango.

Guk ez dakigunez aplikazio bat sortzen ORSUS enpresa azpikontratatu genuke haiek gure enpresa sor dezaten, beti ere guk esku hartze zuzena izanik aplikazioa diseinatzeko garaian. kontaktu edo esku hartze hori, Anek egingo du, izan ere, bera da marketingaren arduraduna.



Bestalde, aplikazioa behin sortua eta antolatu egonda, VINTED aplikazioarekin akordio bat egingo genuke, gure proiektuan zuzeneko sarbide bat lortzeko. Gure ideia nagusienetako bat, erabiltzen ez den arropa saltzea da, kontsumoa jeisteko, beraz horrelako akordio batekin gure helburua lor dezakegu.

Horretarako, gure aplikazioak zuzeneko elkartratze bat izango du VINTED aplikazioarekin.



APP STORE eta GOOGLE PLAY izango liratezke beste elkarte garrantzitsuak, izan ere, jendeak WearMe aplikazioa deskargatu ahal izateko, nonbaitetik egin behar du, eta plataforma horiek aipatuak izango dira.



Azkenik, gure aplikazioaren ezagutza aurrera eramateko, jende famatuaren beharra dugu hau babes dezaten. Horretarako bi *INFLUENCER* famaturekin elkartuko gara,



@roxanazurdo eta @bycarlitos\_official izango direnak. Hauen helburua, haien sare sozialetan gure produktua erakustea izango litzateke, haien jarraitzaileek gure aplikazioaren berri izan dezaten. WearMe babesteko bide nagusienak, intagram, tik tok eta youtube izango liratezke, eta bestela, twitter eta facebook bezalako sareak. Pertsona hauen sare sozialetaz gain, guk ere sare sozialak martxan jarriko ditugu @wear.me\_eina izenpean.

